



DURANGO
Udala • Ayuntamiento

GAZTE ALOKAIRUA KUDEATZEKO
ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA

Hasierako onespena: 18/01/30eko Osoko Bilkuran


Hasierako argitalpena: [B.A.O. 29.zk., 18/02/09](#)

Informazio publikoa: 30 egun

Alegazioak: bai

Behin betiko onespena: 18/04/24ko Osoko Bilkuran

Behin betiko argitaraua: [B.A.O. 86.zk., 18/05/07](#)



GAZTE ALOKAIRUA KUDEATZEKO ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA

1. Artikulua. Heburua

Ordenantza honen bidez, Durangoko Udalaren jabetzako etxebizitzaren errentamendua eta haien kontratuen titularra hautatzeko baldintzak eta prozedura arautu nahi dira, 18-30 urte arteko gazteei **trantsiziozko alokairua** emateko, eta emantzipatzen laguntzeko, une honetan, merkatuko egoera dela-eta, oso zaila baita etxebizitza bat eskuratzea.

Hortaz, biztanleen esku uzten diren udal-baliabideak aldizkakoak eta trantsiziokoak izango dira, batetik, gazteak emantzipatzen laguntzeko, eta, bestetik, ahalik eta gazte gehien barnean hartzeko. Hortaz, kontratuaren iraupen-epea funtsezkoa da.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 4. artikulua arauzko eta auto antolakuntzako ahalmena aitortzen die tokiko erakundeei. Ordenantza horrek etxebizitza berriak alokairuko merkatuan jarritz lortu nahi diren helburuak finkatu, eta etxebizitza horiek eskuratzeko eta erabiltzeko prozedurak, alokatzeko baldintzak eta adjudikazioak proposatzeko organo arduradunak zehaztu nahi ditu, besteak beste.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 2. artikuluan jasotako arauzko aurreikuspenak gaitasuna ematen die udalei beren interesen zirkuluan eragin zuzena duten auzietan esku hartzeko, eta behar adina ahalmen ematen die, jarduera horiek ezartzeko eta arautzeko, deszentralizatzeko eta herritarrengandik ahalik eta hurbilen egoteko printzipioei jarraiki. Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1.7 artikulua dioenez, lege honetan eta ezar daitekeen legerian xedatutakoaren esparruan, udalerriek berezko ahalmenak erabili ahal izango dituzte, etxebizitzak planifikatzeko, programatzeko eta kudeatzeko arloan.


2. Artikulua. Atxikitako etxebizitzak

Ordenantza honek arautu nahi dituen etxebizitzaren parkean Udalak xede horretarako dituen etxebizitzak eta haiek kudeatzeko erakunde publiko edo pribatuekin egin dituen hitzarmenen ondoriozko etxebizitzak daude sartuta. Etxebizitzak eta haien ezaugarriak **(I) ERANSKINEAN** daude zehaztuta.

Eranskin hori Alkatearen Dekretuaren bidez aldatu ahal izango da, etxebizitza berri gehiago sartzeko edo gutxitzeko.

Ordenantza honi dagokionez, etxebizitzak dituzten logela-kopuruaren arabera sailkatu dira:

Tipologia	Logela-kopurua	Bizikidetzako unitateak (BU)
E1	1	Pertsona 1 2 pertsona (ezkontideak edo bikoteak soilik)
E2	2	BU2. Gehienez 2 pertsona + 2 adin txikikoak, 15m ² pertsonako proportzioa betez.
E3	3	BU3. Gehienez 3 pertsona,



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

	edo gehiago	hau da, Pertsona Gehienezko kopurua = logelen kopurua. Adin txilikoak badaude 15m ² pertsonako proportzioa betez.
--	----------------	---

3. Artikulua: Gazteentzako trantsizioko alokairua etxebizitza eskuratzea

Alokairu-programa honetako errentari izan nahi duten pertsonak berariaz inskribatu beharko dute GAZTEEN ALOKAIRUA programako eskatzaileen aldi baterako erregistroan (hemendik aurrera, Erregistroa).

Horrez gain, oinarriak eta prozedurak finkatzen dira, erregistroan inskribatzeko, eskatzaileak hautatzeko eta etxebizitzak adjudikatzeko:

3.1. Erregistroa

3.1.1. Izaera

Titular publikoko doako erregistroa da, administrazioko izaerakoa eta Durangoko Udalaren mendekoa, udal-etxebizitzak alokairuko erregimenean eskatzen duten **pertsona fisikoak** edo **"bizikidetzako unitateak"** inskribatzekoa.

Erregistro hori alkatetza dekretu bidez sortuko da programaren hasieran, eta epe itxi bat ezarriko da eskariak aurkezteko. Gainera, urtero, uztailaren 1etik irailaren 30era epe bat egongo da, eskari berriak aurkeztu ahal izateko eta dagoeneko erregistratuta egongo diren eskarietan diru-sarrerei buruzko aldaketak egiteko.

3.1.2. Eginkizunak

Hauek dira Erregistroaren eginkizunak:


- Alokairuko etxebizitza eskatzen duten eta GAZTEEN ALOKAIRUA programaren udal-araudian ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsona fisikoak edo "bizikidetzako unitateak" erregistratzea.
- Alokairuko etxebizitzak kudeatzeko eta adjudikatzeko datuak ematea, herritarrei etxeak eskuratzeko berdintasuna eta konkurrentzia bermatuta.
- Administrazioari informazio gaurkotua ematea etxebizitza-arloko jardueren kontrola eta jarraipena egin ahal izateko, eta etxebizitzako programazio publikoak behar bezala egokitzea benetan dagoen eskaerara.

3.1.3. Kudeaketa

Erregistroaren kudeaketa Udalak izendatuko duen organoaren edo zerbitzuaren ardura izango da.

3.1.4. Datuen babesa

- Erregistroak pertsona fisikoen eta "bizikidetzako-unitateetako" kide diren pertsonen identifikazio-



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

datuak izango ditu, etxebizitzako eskaeren bidez lortutakoak.

2. Datu horiek Durangoko Udalaren izaera pertsonaleko datuen fitxategietan sartuko dira, datuak babesteko araudiari jarraiki eta izaera orokorreko xedapen egokiaren bidez sortu eta arautu ondoren.

3.1.5. Herritarrei informazioa ematea

Herritarrek Erregistroaren funtzionamenduaren eta eskakizunen berri izan dezaten, Udalak behar diren neurriak hartuko ditu, behar den informazioa eskura egon dadin Herritarrentzako Arreta Zerbitzuko bulegoan, eta, telematikoki, Durangoko Udalaren egoitza elektronikoan.

3.2.- Definizioak

- a) **Gazteak:** adin nagusikoak diren eta gehienez 30 urte dituzten pertsonak. Trantsiziozko alokairua hartu ahal izateko, "bizikidetzako unitatea" eratzen duten pertsona guztiek bete beharko dute adinaren eskakizuna. Izatezko ezkontideak edo bikotekideak izango dira salbuespen: kasu horretan, bi pertsonetatik batek bete beharko du eskakizuna.

- b) **"Bizikidetzako unitatea":** Ordenantza honen ondorioei begira, bizikidetzako unitate hauek definitzen dira:

Bizikidetzako unitatea da 18 eta 30 urte arteko 2, 3 edo pertsona gehiagoren batasuna. Pertsonen kopurua logelen kopuru bera izan beharko da gehienez, kargupean adingabeak edukita ere, eta pertsonako 15,00 m² baldintza bete beharko da.

Adingabeak kargupean daudenean, bizikidetzako familia unitatea izena hartzen du.

3.3. Sartzeko eskakizunak


GAZTEEN ALOKAIRUA programan parte hartzeko interesa duten pertsonen baldintza hauek bete beharko dituzte, etxebizitza eskatzen duten pertsonen aldizkako erregistroan sartzeko:

- a) **Adin nagusia izatea edo emantzipatuta egotea** eta gehienez 30 urte izatea eskaera aurkezteko unean.

- b) **Etxebizitza behar dela egiaztatzea**

"Bizikidetzako unitatea" eratzen duten pertsona guztiek behar bezala egiaztatu beharko dute ez dutela beren jabetzako etxerik, ez jabetza soilik, ezta azalera- edo gozamen-eskubidetik ere.

Eskakizun hori Bizkaiko lurralde historikoan egiaztatzeko, Jabetzaren Erregistro Zentralaren ziurtagiria beharko da. Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren etxebizitza eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak eta araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzko 2012ko urriaren 15eko Aginduan eta hura zuzentzen duen 2012ko abenduaren 12ko Aginduan finkatutako salbuespenak izan ezik.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

Etxebizitza baten jabekide izanez gero, jabekide izan litezkeen pertsonen ondasunen balioa egiaztatzea eskatzailearen ardura da (ondasunak tasatzea).

Denboran zehar erosketa diferituko kontratu bat sinatu duten pertsonen dagokienez, etxebizitzaren jabe ez izateko, eta azalera, gozamen edo jabetza soileko eskubiderik ez izateko baldintzarik ez dutela betetzen ulertuko da.

Egoera horretan jarraitu beharko da errentamendu-kontratua indarraldian dagoen bitartean.

Maizterrek nahitaez jakinarazi beharko diote Udalari beren etxebizitza-beharrari dagokion edozein aldaketa: jabetzako, jabetza soileko azalera-eskubide edo gozamen-eskubideko titular izatera igaro orduko egin beharko dute jakinarazpen hori. Inguruabar horren berri eman ezean, kontratua baliogabetu egingo da.

- c) Eskatzaileek eta onuradunek Durangon erroldatuta egon beharko dira, eta sustraitze-eskakizuna beharko dute, eskaera aurkezteko unean, gutxienez etenik gabeko bi urteko antzinatasunarekin; edo, bestela, behar bezala ageri beharko da udalerrian erroldatuta egon direla bost urtez etenik gabe. Azken salbuespen hori bizikidetzako familia unitateei begira egiten da, eta eskatzaileak bere bikotekide edo familia unitateko kideen datuak eman beharko ditu. Kide horiek beste baldintza pertsonal guztiak bete beharko dituzet. Hori udalak egiaztatuko du ofiziozko jardunean.


d) Gutxienezko eta gehienezko diru-sarrerak

Diru-sarrerak egiaztatzean, aintzat hartu beharko da babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren inguruko finantza-neurriei buruzko 2008ko martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuak 21. artikuluan adierazitakoa.

Urteko diru-sarrera gordinak egiaztatzeko, bizikidetzako unitatea osatzen duten pertsonetako bakoitzaren diru-sarrera gordinak zenbatuko dira.

Araudi hau aplikatzeari dagokionez, Dekretu horretako 3.2. b) artikuluan xedatuta dagoena ulertzen da bizikidetzako unitatetzat.

Etz. tipologia	BU	Gutxienezko eta gehienezko diru-sarrerak
E1	Perts. 1	Gutxienezko diru-sarrerak = EA* (14 O.) Gehienezko diru-sarrerak = 16.000 €
	2 Perts..	Ingresos mínimo = 12.000 € Ingresos máximos = 21.000 €
E2	BU-2 perts.	Gutxienezko diru-sarrerak = 12.000 € Gehienezko diru-sarrerak = 21.000 €



DURANGO

Udala • Ayuntamiento


Idazkaritza
Secretaría

E3	BU 3 perts.	Gutxieneko	diru-sarrerak	=
		18.000 €		
		Gehienezko	diru-sarrerak	=
		33.000 €		

*EA = Errenta adierazlea, 14 ordainketarekin kalkulatua

3.4. Inskribatzeko prozedura

- Etxebizitzak errentamendu-erregimenez eskuratzeko interesa dutenek Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan aurkeztu ahal izango dute eredu ofizialeko eskaera, **2. ERANSKINARI** jarraituta, behar bezala beteta, kasu bakoitzean behar den dokumentazioarekin batera, "pertsona fisikoa" edo "bizikidetza-unitatea" diren
- Zenbait pertsonak ***bizikidetza-unitate*** bat osatzen badute, eskaera bakarra aurkeztu beharko dute, adinez heldu diren guztiek sinatuta. Arau horrekiko salbuespen gisa finkatuta dago ezin dela bi familia- edo bizikidetza-unitateko partaide izan, nola eta ez diren zaintza eta zaingoa partekatzen duten bi gurasoren adin txikiko umeak.
- Eskaera egiten duen bizikidetza-unitateak hura osatzen duten kide guztiak jaso beharko ditu, eta haietako bakoitzaren dokumentazio pertsonala egoki aurkeztu.
- Ezkondua edo haren pareko beste harreman iraunkor mota bateko kide izanez gero, ezkontideak edo bikote-kideak islatu beharko dira, hurrenez hurren.
- Eskaera aurkezteko egunean legez bananduta dauden ezkontza edo elkartzeetan izandako seme-alabei dagokienez, haien zaintza aitortu zaion ezkontidearen edo gurasoaren bizikidetza-unitateko partaide izan ahalko dira soilik.
- Eskaera aurkeztu ostean seme-alaben jaiotza, ezkontza, legezko banaketa, dibortzioa edo heriotzaren bat edo gehiago gertatuz gero, gertaera horren berri eman beharko zaio Udalari, bai eta gertaera frogatzen duen dokumentazioa aurkeztu ere.
- Eskaerak aztertuta, prozedurari dagokion onartutakoen eta baztertutakoen zerrenda onetsiko da. Zerrenda hori Durangoko Udaletxean erakutsiko da jendaurrean, bai eta webgunean ere.
- Erreklamazioetako epea agortu, eta aurkeztutako helegiteak ebatzi ondoren, behin betiko zerrenda onetsiko da, Ordenantza honetan finkatuta dauden irizpideetan oinarritutako puntuazio-ordenarekin.
- Eskaera **HAZ Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan** aurkeztuko da, helbide honetan: Barrenkalea 17 behea, 48200 PK, Durango.
- Datuak babesteko araudiari jarraituta, eskaera-eredu normalizatuak argi jakinaraziko dio eskatzaileari haren datu pertsonalak zertan erabiliko dituzten.
- Ered normalizatuaren bitartez bideratutako eskaeran, eskatzailearen edo familia- edo bizikidetza-unitateko kideen datu hauek eta dokumentazioa jasoko dira:



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

- Banaka inskripzioa eskatu duen pertsona fisikoaren eta bizikidetza-unitateko kide guztien izen-abizenak, sexua, jaiotza-eguna, jaioterria, herritartasuna, NAN zenbakia edo, halakorik behar denean, legez egokia den identifikazio-agiria.

- Urteko diru-sarrera gordinak.

- Etxebizitza babestu edo aske baten erabateko erabilerako titularra ez izatearen, bizi osorako hartaz gozatzeko edo etxebizitza-beharra justifikatzen duten arrazoiaren arabera egiazko eskubideari esker halako baten jabea ez izatearen erantzukizuneko adierazpena.


Eskaerak Erregistroan datuak egiaztatze baimena jasoko du.

Hona hemen eskaerari uko egiteko arrazoiak:

- Eskatutako datuak ez aurkeztea. Kasu honetan, uko egin baino lehenago, eskatzaileari akatsen berri emango zaio, hamar egun balioduneko epean konpon ditzan, eta, era berean, ohartaraziko zaio, hala egiten ez badu, eskaerarekin atzera egin duela joko dela, eta, beste izapiderik egin gabe, artxibatu egingo dela eskaera.
- Aurkeztutako datuetan edo Erregistroan egindako egiaztapenean eskatzaileek finkatutako betebeharren bat ez betetzea.
- Eskatzailea GAZTEENTZAKO ALOKAIRU programan etxebizitza-eskatzaileen erregistroan ordurako izena emanda izatea.
- Hautatuak izan arren etxebizitzari beren borondatez uko egiteagatik izen-ematea baliogabetzea.
- Euren legez edo kontratuz dituzten betebeharrak ez betetzeagatik udal-etxebizitza batetik kaleratuak izatea.
- Durangoko Udalaren gazteentzako alokairu-programa beraren barruan alokairuko etxebizitza bati uko egin izana, justifikatutako arrazoi bat tartean izan ez bada.
- Etxebizitza bat alokairuan lortu izana, Etxebide, Bizigune edo Asapen bidez.

Eskatzaileen Erregistro Publikoak ebatziko ditu eskaeren ingurukoak, aurkeztutako egunetik hogeita hamar egunera bitarteko epean. Onartzen ez badu, eskatzaileari arrazoiak jakinaraziko dizkio. Aldiz, onartzen badu, erregistroan inskribatuko da, hurrengo artikuluan ezarritakoaren arabera.

3.5. Izen-ematearen indarraldia. Izen-emateko datuak aldatzea eta baliogabetzea.




DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

- a) Izen-ematea indarrean izango da hura gauzatu zenetik gehienez hiru urtera arteko epealdian. Aipatutako indarraldia bukatu aurreko hiru hilabeteetan, interesdunak egindako izen-ematea berritzeko eskatu ahal izango du.
- b) Izena eman dutenek eskubidea izango dute emandako datuei buruzko informazioa eskatu eta doan jasotzeko.
- c) Izena eman dutenek eskubidea izango dute oker edo osatu gabe dauden inskripzioko datuak zuzentzeko.
- d) Datuak aldatu badira, izena eman dutenek aldaketen berri eman beharko diote Erregistroari, egokia den dokumentazioaren bitartez.
- e) Jakinarazteko epea hiru hilabetekoa izango da, datua aldarazi zuen gertaeraren egunetik zenbatzen hasita.
- f) Izena eman dutenek nahitaez eguneratu beharko dituzte datu ekonomikoak, urte bakoitzeko uztailaren 1etik irailaren 30era bitartekoak; hala egin ezean, baja emango zaie eskatzaileen zerrendan.
- g) Erregistroak behar bezala bermatuko du datuak egiazkoak eta zehatzak direla, eta, horretarako, aldi behingo eguneratzeak egin ahal izango ditu. Eguneratzeak eskatzailea jasota dagoen sarbideari lotutako inskripzioa aldatzen badu, hari jakinaraziko zaio.
- h) Erregistroko inskripzioa arrazoi hauen ondorioz baliogabetuko da:
- Indarraldiaren iraupena bukatu, eta inskripzioa berritu ez bada.
 - Uztailaren 1etik irailaren 30era bitarteko urteroko epean ez bada azken ekitaldi fiskaleko diru-sarreraren justifikazioa aurkeztu.
 - Izena eman duenak dagokion baliogabetzeko eskubidea erabili badu. Inskripzioan, *bizikidetza-unitate* batean izena emandako hainbat eskatzaile biltzen direnean, baliogabetzea erabatekoa izango da, adinez nagusi diren kideek eskatzen badute. Horrelakorik ezean, eskatzen duenaren izen-ematea baliogabetuko da soilik, eta bizikidetza-unitatearen barruko gainerako adinez nagusien izen-emateak eragin guztiak gordeko ditu.
 - Izena eman dutenek etxebizitzaren adjudikaziodunak izateko eskakizunak betetzeari uzten badiote. Hori gertatuz gero, interesatuek egoki zaien adierazteko aukera izango dute.
 - Etxebizitzan sartzeko hautatu dituzten izena emandako hautagaiek aukerari uko egiten badiote.
 - Ondorio horri begira, kasu hauetan uko egitea borondatezkoa ez dela joko da: uko egitea adjudikazioa duen pertsonari edo unitateari ez dagozkion egoeren eraginez gertatzen denean, hala nola, lan-arazoen edo era sinesgarrian adierazitako bestelako egoeren ondorioz.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

- Izena eman dutenek horrela eskatu badute.

4. Artikulua. Kontratuaren iraupena

Esleipenaren ostean, kontratua sinatuko da (III. eranskineko agiri eredua).


- a) Kontratuaren gutxieneko iraupena urtekoa izango da, eta 3 urtera arte luzatu ahal izango da.
- b) Etxebizitzak alokatzeko kontratuak URTEBETEKO (1) iraupena izango du, eta urtero luzatu ahal izango da, aldez aurretik argudioak azalduta, gehienez HIRU (3) urtera bitartean.
- c) Kontratuak bukatu baino lehenago, adjudikazioa eragin zuten inguruabar pertsonal, familiar eta ekonomikoei buruzko azterlana egingo da; Udalak beretzat gordeko du kontratua ez berritzeko ahalmena. Txosten hori Alkatetzak edo hark ordezkotako organoak ebaluatuko du, aldez aurretik berariaz aukeratutako batzorde batek aztertuta.
- d) Luzapen-aldi bakoitzaren garai berean, errentaren berrikuspen bat egingo da, hurrengo artikulua 1. atalean finkatutakoaren arabera.
- e) Kontratua luzatu baino lehenago egoera ekonomikoa edo beste zerbait aldatu dela pentsatzeko arrazoirik bada, berrikuspena egin ahal izango da, eta, egoki irudituz gero, kontratua ez dela luzatuko jakinaraziko da, behar den aurrerapenarekin.
- f) Kontratua berrikusteko unean, udal-etxebizitzetan bizi, eta onartutako gehienezko muga gainditzen duten diru-sarrerak dituzten maizter-unitateek ezingo dute, horrenbestean, etxebizitza horretan bizitzen jarraitu. Aldi baterako kontratua egingo zaie, gehienez 2 hilabeteko iraupeneko, beste etxebizitza bat eskuratu bitartean familia horiek bizilekua izan dezaten.
- g) Finkatutako gehienezko alokairu-aldia bukatzen denean, aldez aurretik kontratua bukatuko dela ohartarazi, eta ez da kontratua luzatuko. Epeak iraun bitartean etxebizitzan irauteko baimena agortutakoan, edo Udalak ebazpena formalki adieraziz gero, etxebizitzan bizi diren guztiek joan egin beharko dute, eta libre utzi, haiek sartu zirenean zegoen baldintza berberetan, zazpi eguneko epean; giltzak Durangoko Udalean utzi beharko dituzte.
- h) Halaber, etxebizitzaren adjudikaziodun izan direnek ezingo dute berriz gazteentzako alokairu-programan izena eman.

5. Artikulua. Baloratzeko eta puntuak emateko irizpideak

Alokairu-araubidean etxebizitzak adjudikatzeko irizpideak balorazio-irizpide hauen arabera egingo dira:

Sarrerak:

Etx. tipologia	BU	Urteko diru-sarrera gordinak	
E1		EA* (14 p)- 13.000 €	13.000- 16.000 €



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

	1P	30	20
	2P	30	20
E2		12.000-19.000 €	19.000- 21.000 €
	BU2	30	20
E3		18.000-24.000 €	24.000- 33.000 €
	BU3 o más	30	20

*EA = Errenta adierazlea, 14 ordainketatan kalkulatua

Banaka eta Bizikidetzak Unitate gisa izena eman dutenen artean eskuratzeko berdintasuna bermatzeko xedez, BUetan, balorazio-irizpidea BUko puntuazio handieneko pertsonarena izango da.

Bizilekua:

Durango bizi izandako urte bakoitzagatik 0,5 puntu lortuko dira, eta gehienez 5 puntu batuko dira.

Puntuaziorik handiena egiaztatu duen bizikidetzak-unitateko kidearen puntuak bakarrik zenbatuko dira.

Berdinketak zozketaz erabakiko dira.

6. Artikulua. Errentamenduko alokairu-errenta zehazteko irizpideak


Ikusi IV eranskineko errenten kalkulurako taula

Errentamendu-kontratuaren urteko luzapen kasuetan, ofizialki argitaratutako azken balioaren (KPI) arabera eguneratuko da errenta, lehenengo eguneraketarako erreferentzia gisa kontratua egindako egunean argitaratutako azken indizeari dagokiona erabilita. Eguneratze horretan, eskuratzeko eskakizunak berrikusi eta baloratuko dira berriro; hala, errenta aldatu ahal izango da, igo ala jaitsiz, haren emaitza aintzat hartuta.

Errenta eguneratua exijituko zaie kontratuaren titularrari edo titularrei, Udalak jakinarazitako egunaren hurrengo hilabetetik aurrera. Aplikaturako aldaketaren ehunekoa adierazi beharko dute eta erreferentzia egin beharko diote indizea argitaratutako dokumentazio ofizialari.

Gainera, pertsonaren edo bizikidetzak unitatearen diru-sarrerak moldatzen badira eta alokairuaren prezioa kalkulatzeko taulan beste tarte badaude, hori ere jakinarazi beharko da.

7. Artikulua errentamendu kontratua formalizatzea



DURANGO
Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

Adjudikaziodunek baldintzak bete dituztela egiaztatu ostean, hamabost egun naturaleko epea izango da kontratua formalizatzeko.

Epe hori Udalari leporatzeko modukoak ez diren arrazoiengatik dagokion kontratua sinatu gabe igaro ondoren, hautagaiak amore eman duela ulertuko da, eta ezingo du berriro Gazteen Alokairu-programan etxebizitza eskatu.

Errentamendu-kontratua ordenantza honekin batera III. eranskin moduan doan ereduaren arabera egingo da. III Eranskina - alokairu kontratua.

8. Artikulua. Debekuak

Etxebizitza ezingo da inongo titulurengatik laga, eta ohiko etxebizitza iraunkorra izango da. Erregistroan bizikidetz-unitate gisa izena emanda daudenak ez diren beste batzuek ezingo dute han bizi, eta erabat debekatuta dago azpierretezea.

Betebehar hori bete ezean, kontratua suntsiarazi ahal izango da.

9. Artikulua. Konpontze eta mantentze-lanak


9.1. Kontzeptua

Mantentze-lanak: aldi behin egin beharreko lanak eta obrak, eraikin bat hondatzeari aurrea hartu ahal izateko, edo konponketa jakin batzuk egiteko, egoera onean iraun dezan, eta, hartara, finkatutako oinarritzko eraikuntza-betebeharrak bete ditzan, fidagarritasun egokiarekin.

Konponketak: gaizki egindako objektu materialak, hondatuak edo hautsiak beren egoera eta funtzionamendu egokira itzularazteko lanak, obrak edo egitekoak.

9.2. Udalaren (alokatzailearen) betebeharrak:

- 1- Maizterren hitzartutako erabileraren zerbitzurako, ondare urbanizatua eta eraikia birgaitzeko jardura babestuei buruzko 317/2002 Dekretuan jasota dagoenaren arabera, etxebizitzak bizigarritasun-baldintza egokietan mantentzea.
- 2- Horretarako, egin beharreko aldi behingo ikuskapenak egin beharko dituzte udal-teknikariak, eta behar diren obra guztiak egin.
- 3- Etxebizitzen alokairuen bitartez jasotako zenbatekoa erregimen horren menpeko etxebizitzek behar dituzten konponketa, obra eta inbertsioak finantzatzera bideratzea.
- 4- Etxebizitzen errentarekin jasotako dirua izaera horretako etxebizitzetan konponketak, obrak edo inbertsioak ordaintzeko erabiliko da.




9.3. Kontratuaren titularren betebeharrak:

Diru-betebeharrak:

- a) Alokatzearen zenbatekoa hilerio Udalak zehaztuko duen kontu korrontean ordaintzea.
- b) Gastu orokorrak:
- c) Errentan hartutako etxebizitzari edo haren gehigarriei dagozkiela jakinik, kontratuaren titularrak hartuko ditu bere gain higiezinak eta banakako bihur daitezkeen haren zerbitzuak, ordainketak eta erantzukizunak egoki mantentzeko gastu orokorrak.
- d) Hain zuzen, jabeen komunitateari dagozkion gastuak dira, bai eraikinekoak, bai eta garajeei dagozkienak ere. Atal horretan sartzen dira ondorengo gastu hauek: higiezinako eta hango instalazioetako elementu bateratu guztietako ohiko garbitasun, mantentze-lan eta kontserbazioko gastu guztiak, bai eta guztiei dagozkien uraren, etxeko ur beroaren, berogailuaren, argindarraren, gasaren eta horrelakoen kontsumoa ordaintzea ere.
- e) Banakako gastuak.
- f) Kontratuaren titularrek ordaindu beharko dituzte:
- g) Errentan utzitako etxebizitzari edo haren osagarriei egokitu dakizkiekeen kontsumoen inguruko gastuak. Atal honetan sartzen dira ondorengo gastu hauek: higiezinako eta bertako gehigarrietako ohiko garbitasun, mantentze-lan eta kontserbazioko gastu guztiak, bai eta ura, argindarra, gasa, telefonoa eta horrelakoen kontsumoa ordaintzea ere. Horretarako, kontsumoei lotutako gastuak helbideratu beharko dira.
- h) Halaber, gastuen barruan daude maizterrari leporatzeko moduko arrazoiengatik egin beharreko konponketak eta etxebizitzaren ohiko erabilerak eragindako higadurak eskatzen dituenak.
- i) Kontratuaren titularrek izango dute banakako zerbitzuak eta hornidurak kontratatzekeo ardura.
- j) Kontratuaren titularrari leporatu ahal zaion arrazoi bategatik hornidura eten bada, titularrak berak hartuko du bere gain kontratazioaren gastua, fidantza eta kontratazio berriari lotutako beste gastu guztiak barne.

Diru-betebeharrak ez direnak:

- a) Errentatzen den etxebizitza kontratuaren titularren familiako etxe iraunkorra izango da, eta guztiz debekatuta egongo da etxebizitza azpierrengatzea, osorik edo zatika lagatzea eta bizikidetzak-unitatetik kanpoko pertsonak gehitzea; etxebizitza garbitasun eta osasungarritasuneko baldintza egokietan gorde beharko dute maizterrek, berariazko bizikidetzako arau egokiak errespetatuz.
- b) Kontratua sinatu ondorengo egunetik hasita, maizterrek hilabeteko epea izango dute etxebizitza horretan beren bizilekua finkatzeko.
- c) Etxebizitzaren ohiko erabilerak eragindako higaduragatik egin beharreko konponketa txikiak haiek ordaindu beharko dituzte.




DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

- d) Maizterrek egin nahi duten edozein obra egiteko, aldez aurretik Udalaren edo Udal enpresaren baimena beharko dute, eta lanei dagokien obra-lizentzia nahitaez eskatu beharko dute. Inolaz ere ezingo da etxebizitzaren egituraketa aldatu. Baimendutako lanek ez dute haien aldeko inolako ordainik eragingo, eta kontratua bukatutakoan eraikinaren onura gisa geldituko dira, maizterrak inolako kalte-ordainik eskatzeko eskubiderik izan gabe.
- e) Ezingo da animaliarik izan (gida-zakurrak izan ezik), ez material higienerik gabeak edota arriskutsuak bildu, ez etxebizitzaren barruan, ez eta hari dagozkion erantsitako lekuetan ere.
- f) Alokairua amaitutakoan, etxebizitza kontserbazio-egoera onean itzuli.
- g) Bizilekuari, ondareari edota baliabide ekonomikoei lotutako inguruabar pertsonalen aldaketa guztiak Udalari jakinarazi, gertaeraren hurrengo 15 eguneko epearen barruan.
- h) Egin beharreko konponketak egiteko eta eskumena duen udal-organoak aldi berean behingo ikuskapenak egiteko langileak etxebizitzan sar daitezzen onartu. Maizterrak etxebizitza modu desegokian edo axolagabearen erabiltzeagatik eragindako kalteak aurkituz gero, haiek konpontzeak edo ordezkatzeko sortutako gastuak bere gain hartu beharko ditu.
- i) Kontratua amaitzean atzeratu ezin diren obrak bere gain hartu.
- j) Etxebizitzan inolako merkataritza- edo industria-jarduerarik ez gauzatu.
- k) Fidantza mailegatu: kontratu hau sinatzen duen kontratuaren titularrak errentatzailearen esku utziko du hileko ordainketa bat fidantza moduan. Kontratuaren titularrak bere gain hartutako betebeharrei erantzuteko erabili ahal izango da, eta kontratua amaitzen denean itzuliko zaio. Eusko Jaurlaritzaren bidez kudeatuko da fidantzaren ordainketa eta gordailua.
- l) Erantzukizuneko aseguru bat kontratatu alokairu-epe osoan zehar, etxebizitzaren inguruko gorabehera jakin batzuei erantzun ahal izateko:
- Erantzukizun zibileko aseguruak honako hauek jaso beharko ditu gutxienez:
- Erantzukizun zibila: 150.000 €
 - Edukia: 10.000 €
 - Defentsa juridikoa: 3.000 €
- m) Adjudikaziodunak mugitzeko edo beste era bateko behar bereziren bat badu, egokitze lanak bere kontura izango dira. Uko eginez gero, ez da zigorrik ezarriko.
- n) Horretarako finkatutako epean etxebizitza utzi, Udalari giltzak emanda.

10. Artikulua. Errentamendu kontratu suntsitzeko arrazoiak




DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

Hona hemen errentamendu-kontratua suntsiarazteko egon daitezkeen arrazoiak:

1. Adjudikaziodun pertsonak etxebizitza beraren eta bere familiaren ohiko bizileku bakar gisa ez erabiltzea.
2. Egiaztatuta izatea etxebizitza adjudikatzeko arrazoi izan ziren baldintzak ez direla betetzen, edo etxebizitza adjudikatzeko aurkeztutako eskaerak edo dokumentazioa ez direla egiazkoak.
3. Kontratuaren titularrak edo haren familia-unitateko pertsonak etxebizitzan edo hura kokatzen den higiezinengainuzko kalteak eragitea edo Udalak berariaz baimenik eman gabe obrak egitea.
4. Etxebizitzan jarduera gogaikarriak, osasun-galgarriak, kaltegarriak, arriskutsuak edo bidegabeak egitea, edo etxebizitzarako edo kokatuta dagoen higiezinarako kalteak ekarri, edo eraikineko elementu erkideak edo bertako etxebizitzetako erabilera aztoratu dezaketen beste edozein jarduera.
5. Estatutuetan edota auzokideen komunitateko barne-araubidean jasota dauden baldintzak ez betetzea.
6. Kontratutik eratorritako betebeharrak ekonomikoak ez betetzea.
7. Ordenantza honetako xedapenen arabera, etxebizitza gaizki erabiltzea.
8. Ordenantza honetako edozein betebeharrak edota baldintza ez betetzea; bereziki, errentatzailearen baimenik gabe obrak egitea.
9. Fidantza ez jartzea.
10. Kontratua sinatu ondorengo egunetik zenbatzen hasita, maizterrek hilabeteko epean etxebizitza horretan beren bizilekua ez finkatzea.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

I. ERASKINA /ANEXO I

ATXIKITAKO ETXEBIZITAK VIVIENDAS ADSCRITAS

ZB. Nº	TIPOLOGIA TIPOLOGIA	ETXEBIZITZA VIVIENDA	GARAJEA GARAJE	TRASTELEKUA TRASTERO	SARRERA URTEA AÑO INCORPORACION
*	E1 / V1	C/ Undatorre kalea 8B,2º-B	P-45	54(PB)	Ostatua heman / Realajo
1	E1 / V1	C/ Undatorre kalea 8A,PB-A	P-12	3(PB)	2018
2	E1 / V1	C/ Undatorre kalea 8A,PB-B	P-56	49(PB)	2018
3	E1 / V1	C/ Undatorre kalea 8B,PB-A	P-37	56(PB)	2018
4	E1 / V1	C/ Undatorre kalea 8B,PB-C	P-39	58(PB)	2018
5	E2 / V2	C/ Undatorre kalea 8A,1º-A	P-11	1(P-3)	2018
6	E2 / V2	C/ Undatorre kalea 8B,PB-B	P-38	57 (PB)	2018

II. ERASKINA /ANEXO II

GAZTEEN ALOKAIRUA PROGRAMAN ETXEBIZITZA ESKATZEKO ERREGISTROA REGISTRO DE SOLICITANTES DE VIVIENDA DE ALQUILER JOVEN


ESKAERA PERTSONALA / SOLICITUD PERSONAL

Izen-abizenak/ Nombre y apellidos		NAN / DNI		Egoera Zibila / Estado Civil
Jakinarazpenetarako helbidea Dirección a efectos de notificación				
Herria Municipio	Posta Kodea Código Postal	Probintzia Provincia		
Telefono mugikorra / Teléfono Móvil	Posta elektronikoa / Correo electrónico	Etxebide espediente zk: Nº Expediente Etxebide:		
Erroldatze udalerrria Municipio Empadronamiento	Erroldatze data Fecha empadronamiento	Mugikortasun arloko desgaitasuna Discapacidad Motriz ☐		

BIZIKIDETZA-UNITATEAREN ESKAERA / UNIDADES CONVIVENCIALES

18-35 urte arteko pertsonak bakarrik / solo las personas entre 18 y 35 años

Izen-abizenak / Nombre y apellidos		NAN / DNI		Egoera Zibila / Estado Civil
Telefono mugikorra / Teléfono Móvil	Posta elektronikoa / Correo electrónico			
Eskatzilearekin ahaidetasuna Parentesco con la persona solicitante				



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

Izen-abizenak / Nombre y apellidos		NAN / DNI		Egoera Zibila / Estado Civil
Telefono mugikorra / Teléfono Móvil	Posta elektronikoa / Correo electrónico			
Eskatzilearekin Ahaidetasuna Parentesco con la persona solicitante				

Izen-abizenak / Nombre y apellidos		NAN / DNI		Egoera Zibila / Estado Civil
Telefono mugikorra / Teléfono Móvil	Posta elektronikoa / Correo electrónico			
Eskatzilearekin ahaidetasuna Parentesco con la persona solicitante				

Bizikidetza unitateko beste kide batzuk / Otros miembros de la unidad convivencial

Izen-abizenak / Nombre y apellidos	NAN / DNI	Egoera Zibila / Estado Civil	Ahaidetasuna Parentesco

Etxebizitza premia / Necesidad de vivienda

Zuk edo bizikidetza unitateko kideren batek gaur egun edo azken bi urteotan etxebizitzaren baten jabetza, azalera-eskubidea, gozamen-eskubidea edo jabetza soila daukazue edo izan duzue?

Bai / Sí ☐

Ez / No ☐

¿Alguna persona de la unidad convivencial dispone actualmente o ha dispuesto en los dos últimos años de vivienda en propiedad, en derecho de superficie, en usufructo o en nuda propiedad?

Etxebizitza-premia izateko baldintzatik salbuetsita egongo dira 2008ko apirilaren 16ko Aginduan araututako etxebizitza-beharren egoeraren baten dauden pertsonak.

Están exceptuadas del requisito de tener necesidad de vivienda las personas en situación de especial necesidad de vivienda regulados en la Orden de 16 de abril de 2008, sobre circunstancias de necesidad de vivienda.

Datu pertsonalei buruzko informazio-klausula eta erantzukizunpeko adierazpena / Cláusula de información de datos de carácter personal y Declaración Responsable

Baimena ematen diet Durangoko Udalari eta Durango Eraikitzen S.Ari, behar besteko dokumentazioa eskatzeko erakunde eskudunei, GAZTE ALOKAIRUA programako baldintza guztiak betetzen direla egiaztatzeko eta, hala badagokio, eguneratzeko.

Era berean, **baimena** ematen diet Durangoko Udalari eta Durango Eraikitzen SA sozietate publikoari, eskabide honetako datuak igortzeko zaharberitze eta etxebizitza arloko beste erakunde eta administrazio publiko eskudun batzuei, erakunde horien aurrean ondorioak izan ditzaten.

Hemen jasotako datuetan aldaketaren bat izanez gero, Durangoko Udalari eta Durango Eraikitzen SA Sozietate Publikoari **jakinaraziko** diet.


Datu Pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa betez, jakinarazten da eskaintzen dituen eta lortzeko baimentzen dituen datu pertsonal guztiak Durangoko Udalaren zein Durango Eraikitzen SA Sozietate Publikoaren titulartasunekoa den datu pertsonalak babesteko fitxategi automatizatuaren sartuko direla.

